

txintxarri

Euren egoera ikusarazten

Udalaren etxez etxeko laguntza zerbitzuko langileak ekimenak egiten hasi dira, lan baldintzak hobetzea helburu / 4

TXINTXARRI

Musika elektronikoaren jaialdia

Dantz Point egitasmoaren 3. aldia ospatuko dute asteburuan. Horren gaineko xehetasunak eman ditu Jokin Telleriak / 7

Herrian jarduera ekonomikoak abian jarri nahi dituztenak diruz lagunduko ditu udalak / 2

Oporrak Bakean egitasmoan izena emateko azken egunak direla gogorarazi dute / 3

Eusko Legebitzarrerako hauteskunde kanpaina betean dira alderdi politikoak / 5

Atari digital berria estreinatu du Ttakun Kultur Elkarteak, TaPuntu-rekin elkarlanean / 6

Olinpiar Jokoetan lehiatuko da Maialen Chourraut piraguisa herritarra, bosgarren aldiz / 10

BTT Rural Kutxa lasterketa jokatu dute Lasarte-Orian igandean, hilak 14, 09:00etan hasita / 12

2x189 €
MÓ BETAURREKO PROGRESIBOAK

BATZUK EGUZKITAKOAK IZAN DAITEZKE MILA MODELO BAINO GEHIAGO

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.

R.P.S. 91/20



multiópticas

943 37 74 55
Kale Nagusia, 15. LASARTE-ORIA



eskatu hitzordua
WhatsApp bidez

www.multiópticas.com



Ekintzaileak diruz lagunduko ditu udalak

Herrian jarduera ekonomikoak aurrera eraman nahi dituztenentzat 40.000 euroko partida bat prestatu du. Negozioek merkataritza, ostalaritza edo zerbitzu pertsonalen alorrekoak izan beharko dute. Parte hartzeko azken eguna urriaren 31 da

Txintxarri

Dirulaguntza lerro bat prestatu du Lasarte-Oriako Udalak, gure herrian enpresa txikiak eratu nahi dituztenei laguntzeko: 40.000 euro bideratuko ditu horretara. Negozioek merkataritza, ostalaritza edo zerbitzu pertsonalen alorrekoak izan beharko dute. Eskaerak egiteko epea urriaren 31n bukatuko da, egun hori barne. Iaz, hamar establezimenduren jabek baliatu zuten aukera hori eta 25.800 euro jaso zituzten guztien artean.

Agustin Valdivia alkateak eta Sozioekonomia saileko buru Nuria Fernandezek azaldu dituzte lerro horren xehetasunak. Zortzi urte daramatzate enpresa txikiak ireki nahi dituzten herritarrek laguntzen, tokiko merkataritza "sustatu eta indartzeko" asmoz. Urteak joan eta etorri, bideratu beharreko diru kopurua eskaerara doitu dute eta azken urteetan egonkortu egin dute: 40.000 euroko poltsa bat prestatu dute. Ekintzaileek eskatutakoa ez balitz kopuru horretara iritsiko, soberan geratzen dena eskatzaileen artean banatuko dute, betiere kontuan izanda zein den eskatutakoaren eta onartutako gastu totalarekiko proportzionala dena eta esleitu zaienaren %20 baino gehiago izango ez dena. Kontrara, 40.000



Valdivia eta Fernandez, aurkezpen prentsaurrekoan. TXINTXARRI

euro horiekin ez balira helduko, alkateak jakinarazi du igo egingo luketela diru partida.

Iaz, hamar onuradun

2022an baino bost establezimendu gutxiagok baliatu zuten dirulaguntzak eskuratzeko aukera. Hamar komertzioaren artean 25.800 euro jaso zituzten. Hauek izan dira: Jalgi kafe antzokia, Maite estetika zentroa, Veruschka estetika, Küchen sukaldeak, Arima taberna, AES ile apaindegia, Vain Woman, Lilura liburu eta jolas denda, Auzoko

denda eta First Connect telefonia denda. 1.800 eta 3.000 euro artean inbertitu zituzten jabeek udalaren ekarpen ekonomikoari esker.

Ekintzaileak martxan jarri nahi duen negozio motaren arabera laguntza lerro batzuk prestatu ditu udalak. Dirua ematerakoan kontuan izango dituen artean daude establezimenduaren eremua, jabearen adina, errotulazio hizkuntza, *coworking* lankidetzak espazioaren bat erabiliko duen ala ez... Horiei buruzko informazioa www.txintxarri.eus webgunean duzue.



TXINTXARRI

Sagardotegi giroan afaldu dute

Txotx bolada betean, Semblante Andaluz elkarteak barrikotea egin du urtero bezala. Aburuza etxeko upela jarri eta etengabe txotx egin dute afaltzera bertaratu diren 75 lagunek. Sagardoari laguntzeko ezaguna den menua prestatu dute sukaldean ibili diren bazkideek: bakailao tortila, bakailao frijitua piperrekin, txuleta eta postrea.

Haur danborradan izena emateko epea irekiko dute

ATLO elkarteak jakinarazi du aurtengo sanpedroetako haur danborradan parte hartu nahi dutenek hilaren 16tik 18ra arte izena eman beharko dutela eragilearen kultur etxeko lokalean, 18:00etatik 19:00etara.

2007 eta 2017 artean jaiotako umeak danbor edo kupel jottzaileak izango dira eta 2018ko nahiz 2019ko haurrak, kantina edo gastadoreak. ATLOko kideek jakinarazi dute errifa bat antolatu dutela ekimen horren gastuen zati bat finantzatzeko; bizikleta bat zozkatuko dute parte hartzaileen artean. Haurren danborrada ekainaren 30ean izango dela aurreratu dute.

'Dei galdu bat' aurkeztuko du Idoia Garzes Aldazabalek

Idoia Garzes Aldazabal idazle lasarteoriatarrak *Dei galdu bat* eleberria argitaratu berri du Elkar argitaletxearekin eta bere egoitzan aurkeztu. 12 eta 16 urte arteko nerabeei zuzendutako liburua da, Aminata eta Itsaso neska gazteak protagonista dituenak. Udal Liburutegiak antolatu du hilaren 25eko aurkezpen saioa, bi egun lehenago Liburuaren Nazioarteko Eguna izango delako.

Goiatz Labandibarrek gidatuko du aurkezpen ekitaldia. Manuel Lekuona Kultur Etxeko hitzaldi aretoan izango da, 18:30etik 19:30era. Sarrera doakoa dela jakinarazi dute antolatzaileek.

Aurtengo egutegi fiskalari buruzkoak azaldu dituzte

Udalak gogorarazi du herritarrek ordainketa malguaren sistema erabil dezaketela zergak pagatzeko

Txintxarri

Herritarrek urteko zergak eta lau hileroko tasak ordaindu beharko dituzte. Lehen multzokoak dira Ibilgailuen Gaineko Zerga (martxoaren 1etik apirilaren 15era arte), Ondasun Hi-

giezinen gaineko Zerga (maiatzaren 15etik ekainaren 30era) eta Ibien tasa (urriaren 1etik azaroaren 15era). Bigarrenekoak, berriz, hauek: ura eta estolderia (lauhilekoak ekainaren 1etik uztailaren 15era, urriaren 1etik

azaroaren 15era eta datorren urteko otsailaren 1etik martxoaren 15era ordaindu behar dituzte) eta hiri hondakinak (ordainketak apirilaren 1etik maiatzaren 15era, abuztuaren 1etik irailaren 15era eta abenduaren 1etik urtarrilaren 15era izango dira).

Udalak zehaztu du aipatutako data horiek aldatzea posible dela "ustekabeko zerbait" gertatu bada eta epe berriak "aurrez" jakinarazten badituzte herritarrek. Tasak ordaintze-



Iturri bat, ura isurtzen. TXINTXARRI

rakoan sistema malgua erabil dezaketela azpimarratu du: modu hori erabilia bi epetan ordain ditzakete Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga eta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Zerga, "banku helbideratzearen bidez, errekaru eta interesik gabe".

Ordainketa sistema malgua erabiltzeko eskaera udalaren webgunean edo udaletxeko hirugarren solairuko Dirubilketa departamentuan egin dezakete herritarrek.

Oporrak Bakean-en izena emateko azken egunak

Haur sahararrak uztail eta abuztuan etxean hartu nahi dituztenek hilaren 15era arte dute egitasmoan izena emateko, astelehenarekin. Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria taldearen erronka udalerrira iaz baino ume gehiago ekartzea da

Txintxarri

Uda bateko besarkada lelopean, haur sahararrak familietan hartzeko Oporrak Bakean programa martxan jarri dute eta Lasarte-Oria ere buru-belarri ari dira lanean. Aurtengo erronka iaz baino haur saharar gehiago ekartzea izango dela adierazi dute Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria taldeko kideek. Izena emateko azken eguna hilaren 15a da, astelehena. Proiektuari buruz informatzeko bilera bat aurrera eraman zuten hilaren 11n, Mirentxu eraikineko aretoan.

Uztail eta abuztuan zehar 8 eta 12 urte arteko haurrak Saharako udako baldintza gogorretatik aldentzeaz gain, beraien elikadura eta osasuna hobetzen dute eta osasun azterketak egiten dizkiete, besteak beste. Herrialde horretako gaztaka politikoa ahaztu, sasoi indartu eta beste errealitate batzuk ezagutzeko aukera ematen diete. Horrez gain, hizkuntza berriak ikasten dituzte eta bizitza osorako lagunak egin, baita bigarren familia bat ere.

Uda honetan saharar haur baten harrera familia izan nahi dutenek elkartearrekin harremanetan jartzeko bide hauek dituzte: www.oporrakbakean.eus



Bi haur, Mendebaldeko Sahararen aldeko ekimen batean. TXINTXARRI

eus webgunea, oporrakbakean@gmail.com helbide elektronikoa edota 696 01 47 86 telefonoa.

Xedea, 300 haur ekartzea

Oporrak Bakean egitasmoaren antolatzaileek adierazi dutenez, "urte asko" igaro dira ume sahararren lehen taldea Euskal Herrira etorri zenetik uda igarotzera. Urtez urte kopuruak aldatu egin badira ere, zehaztu dute 300 haur ekartzea dela haien helburua. "Gaztetzoei harrera egitea inoiz baino beharrezkoa da".

Premiazko ongietorri horren arrazoietakoz batzuk hauek dira: umeak basamortuko udako baldintza gogorretatik aldentzea (50 gradu baino gehiagoko tenperaturak, haize ekaitzak...), osasuna hobetzea elikadura orekatu baten bidez, oinarriko osasun azterketak egitea, errefuxiatuen kanpalekukoa ez den beste errealitate eta kultura bat ezagutzeko edota hemengo herritarrek Mendebaldeko Sahararen egoeraz sentsibilizatzea, bi gizartearen arteko harremana sustatuta.



NEURE KABUZ
LIERNI REKONDO

Sarean harrapatuta

Osasun mentalaren gaia bolo-bolo dabil azken urteetan, eta geroz eta ikerketa gehiago burutzen ari dira gai honen inguruan. Duela pare bat egun, sare sozialetan saltseatzen nabilela, zera zion albistea irakurri nuen bertan: osasun mentalean arazoak dituzten gazteen ehunekoa goraka doa etengabe. Pantailari klik egin nion hatzaz, eta argaltzeko jarraitu beharreko dieta baten inguruan hitz egin zidan jarraian zetorren bideoak, harremanen alderdi toxikoa goraiptatu hurrengoak.

Aro digitalean, sareak gazteen, eta ez hain gazteen, eguneroko bizitzaren zati integral bihurtu dira. Hala ere, nonahikotasunak zalantza handiak sortzen ditu belaunaldi honen osasun mentalean duten eraginari buruz. Sare sozialek konexio sozialerako eta adierazpen pertsonalerako plataforma bat eskaintzen badute ere, antsietatea, depresioa eta autoestimu baxua ere sor ditzaketeela mahaigaineratu da.

Arazo nagusietako bat etengabeko alderaketa dela esango nuke. Plataforma hauek alderaketa kultura bat sustatzen dute, non erabiltzaileek etengabe ebaluatzen dituzten beren bizitzak, besteen itxura perfektuaren arabera. Horrek nahikoa izatearen ala ez izatearen sentipenak sortzen ditu gure bizitzekin alderatzerakoan eta, horrek, lehendik zeuden osasun mentaleko arazoak areagotu edo arazo berriak sor ditzake.

Gainera, "zerbait galtzeko beldurraren" fenomenoak (FOMO, ingelesez) sare sozialekiko mendekotasuna elikatzen du. Badirudi inguruko baina aberatsagoa dela pantaila barruan dagoen mundua. Horrek etengabe konektatuta egoteko premia konpulsiboa sortu dezake eta aldi berean ongizate orokorra zalantzan jarri eta pantailatik kanpoko jardueretan kontzentratzeko gaitasuna murriztu. Beste alderdi kezagarri bat jazarpen zibernetikoa da. Interneten anonimotasuna eta distantzia fisikoa direla eta, sarritan, jendea askeago sentitzen da beste batzuk jazartzeko, eta horrek arazo emozional larriak eragin ditzake.

Aisirako eta lanerako tresna funtzionalak zirenak arazo larri bihurtzen ari dira, eta onura ugari eskaintzen badituzte ere, ezin da alde batera utzi gudan duten eragin negatiboa. Nahitaezkoa da une batez gelditzea norbere buruari begiratu eta sarearekin dugun harremana ikertzeko.

Gero eta digitalizatuagoa den mundu honetan badirudi sarean publikatzen ez dena, sarearen parte ez dena, ez dela existitzen, baina agian gu gara ia ohartu gabe bizitza errealean existitzeari uzten ari garenak.

Udarako HEZITZAILE lan poltsa

Balaratuko da:

- Begirale edo zuzendari titulua.
- C1 edo baliokidea den agiria.
- Ikasketak.
- Esperientzia.

Beharrezkoa da:

- Sexu delitua egiteagatik aurrekari penalak ez dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Itakunen parte izan nahi duzu?

Bete galdetegia:
labur.eus/hezitzaileakuda



Praktikak gurekin egiteko

Jar zaitetz gurekin harremanetan
begiraleak@ttakun.eus

Aldarriak kalera atera dituzte EZLko langileek

Udalaren etxez etxeko laguntza zerbitzuan aritzen diren beharginek soldatak igotzea eta 2018tik izoztuta duten Kontsumo Prezioen Indizea eguneratzea eskatu dute. Neurri horiek aplikatzeko dirua plegu berrietako aurrekontuetan jasotzea galdegin dute

Txintxarri

Serveo enpresak kudeatzen du gaur egun Lasarte-Oriako etxez etxeko laguntza zerbitzua (EZL). Bertako komiteak (UGT, LAB eta ELA sindikatuek dute ordezkari horretan) salatu du egitasmo horretara erakundeak bideratzen duen aurrekontua ez dela nahikoa eta horrek beharginen soldatetan ondorioak dituela, enpresa berean lan eginda ere ez dutelako berdind kobratzen. "Eibarrekoe, adibidez, Lasarte-Oriakoekin baino diru dezente gehiago jasotzen dute lan berbera egiteagatik".

Zerbitzu horren plegu berriak aurten prestatu behar ditu udalak. Txosten horretan langileen datozen urteetako soldata igorak jasotzea eskatu dio komiteak eta baita diru partida zehatz bat sartzea aurrekontuan, 2018tik izoztuta dagoen Kontsumo Prezioen Indizea (KPI) eguneratzeko negoziatioari ekiteko.

Komitean ordezkari duen UGT sindikatuko kideek azaldu dutenez, udalak kostu erreala behar bezala ez kalkulatzek zerbait ondorio izan ditzake, hala nola, kalkulu ekonomikoak oker egitea. "Langileak kalte-tuko lituzke horrek, zerbitzua adjudikatzen zaion enpresak ezingo dituelako beharginen kostuak estali". Ildo horretatik, jakinarazi dute Lasarte-Orian aritzen diren langileek "behin eta berrin" eskatu diotela Serveori euren baldintzak Eibarreko beharginenekin parekatzeko; enpresak ezetz esan die, Lasarte-Oriako Udalaren aurrekontuko dirua aski ez dela argudiatuta.

Horrez gain, EZLko langileek galdegin diote udalari zerbitzua erabiltzen dutenei "zetzuko prezio bat" kobratzea, lan berbera merkeago eskaintzen dutenengana joan ez daitezela. "Enpresa pribatuei 16,50 euro pagatu behar dizkiete erabiltza-

leek orduko eta udalak 19 euroren truke eskaintzen du. Erakundeak zerbitzua emateari uztea ekarriko du horrek".

Esan bezala, langileetako batzuk Andatza plazan izan dira arestian aipatutakoa herritarrei azaltzen. Eusko Legebiltzararako hauteskundearen harira udal gobernuko kideak ere bertaratu direla baliatuta, haiekin hitz egin dute. Datozen asteetan ekintza gehiago aurrera eramango dituztela iragarri dute beharginek.

"Infinitura arte"

Azokara joan diren langile batzuekin hitz egin du TXINTXARRI-k eta argi adierazi diote "infinitura arte" borrokan jarraitzeko asmoa dutela. Euren helburu nagusia gaur egun dituzten lan baldintza prekarioak hobetzea da: "Miseria bat kobratzen dugu". Ekintza gehiago aurrera eramango dituztela jakinarazi dute.



Herritar bat, langile batek emandako eskuorria irakurtzen. TXINTXARRI



Udal gobernuko kideak azokan zeudenez, haiekin hitz egitera joan dira. TXINTXARRI

Osasunaren aldeko ekintza

Lasarte-Oriako Osasun Publikoaren Aldeko taldeak manifestazio bat aurrera eramango du gaur, hilak 12, 18:00etatik aurrera, *Osasun publiko eta kalitatekoaren alde* lelopean. Anbulategi parean jarri dute hitzordua, bertatik abiatu eta erdigunea zeharkatzeko. Martxo erdialdean egindako ekimenean 1.200 sinadura baino gehiago bildu zituztela jakinarazi dute eragileko kideek.



TXINTXARRI



TXINTXARRI

Gaztetxearen premiari buruz

Boroblean Elkarteak hilaren 23an egingo du hurrengo mahai ingurua, *Lasarte-Oriak gaztetxea behar du?* izenburupean. Oriarte Landaberri institutuan izango da saioa eta 19:00etan hasiko da. Egitasmo hauetako kideak gonbidatuko dituzte: Birunda Donostiako Alde Zaharreko gune autogestionatua, Usurbilgo Elkargunea eta Añorgako nahiz Orioko gaztetxeak.

Kanpaina betean dira alderdi politikoak

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeen atarian ekintzak aurrera eramaten ari dira zerrendak aurkeztu dituzten alderdien Lasarte-Oriako taldeak. Batetik, PPko Javier de Andres lehendakariak udalerrira bisitatu du, eta, bestetik, azokan izan dira EH Bildu eta PSE-EE

Txintxarri

Hilaren 21ean izango dira Eusko Legebiltzarrerako bozak eta alderdi politikoak kanpainako ekintzak egin eta egin ari dira. Lasarte-Oria ez da salbuespena eta udal korporazioan ordezkariak duten talde gehienak herritarren botoak erakarri nahian ari dira.

PP izan da orain arte ekitaldi politiko bat egin duen bakarra, Javier de Andres lehendakariak gonbidatuta. Okendo plazan hitz egin du politikariak, Gipuzkoako PPko lehendakari Muriel Larrea eta Lasarte-Oriako zinegotzi Manuel Palaciorekin batera. Alderdi horrek etxebizitza alorrean sustatuko duenari buruz jardun da.

Etxeak eraiki eta alokairua sustatu. Bi neurri horiek dira PPren etxebizitza politikaren bi neurri nagusiak. Javier de Andres lehendakariaren arabera, horrek ekarriko du gaur egungo prezio garestiak merketu eta "jasanezina" bihurtu den egoera lasaitzea. "104.000 etxebizitza behar ditugu EAEn eta formula erraza da: zenbat eta etxe gehiago eskaini, orduan eta aukera gehiago eskariari erantzun eta prezioak merketzeko". Horren harira, zehaztu du gazte askok Euskaditik kanpora

joan behar dutela etxe bat erosi edo alokatu eta haien bizi proiektuari ekiteko.

Gipuzkoako PPko lehendakari Muriel Larreak azpimarratu du "desberdina" dela PPren politika alor horretan, beste alderdiek ez bezala ez dutelako sinesten politikarien esku hartzean eta mugak jartzean. "Etxebizitzaren merkatuak librea izan behar du".

Okendo plazako arkupeetan adierazpenak egin ostean, loreak banatu dituzte inguruan zebiltzan herritarren artean. De Andresek eta Larreak herriko udal korporazioko zinegotzi Manuel Palacio izan dute lagun gaurko

ekitaldian. Beste zenbait alderdikide ere bertaratu dira, hala nola, Gipuzkoako zerrendako hirugarren postuan joango den Adrian Ortuñez.

Azokako ibilaldiak eta kartelak

Beste askotan gertatu bezala kanpainaren gune nagusietako bat bilakatu da Andatza plazako azoka. Hilaren 10ekora bertaratu ziren EH Bildu eta PSE-EEko ordezkariak informazio orriak eta larrosak banatzera, hurrenez hurren.

Horrez gain, kartelak itsatsi dituzte alderdi politikoek herrian zehar, horretarako jarritako egurrezko hormetan.



Ezker-eskuin: Palacio, de Andres, Larrea eta Ortuñez. TXINTXARRI



EAJko kideak, herrian zehar kartelak itsastean. EAJ



EH Bilduko (goian) eta PSE-EEko (behean) ordezkariak, azokan. TXINTXARRI



Kontsultatu gure programa hemen:
mirengorrotxategi.eus



MIREN GORROTXATEGI

Elkarrekin Podemoseko lehendakariaga



AUKERATU

EZKERRA

BOZKATU

elkarrekin
 Podemos | Alianza Verde





Gailu desberdinekin nabigatzeko egokituta dago atari digitala. TXINTXARRI

Ttakun Kultur Elkartea, unibertso digitalean ere bai

Euskara eta euskal kultura Lasarte-Orian normalizatzearen alde lanean ari den eragileak atari digital berri bat jarri du herritarren eskura. Bertan nabigatzen dutenek elkartearen historia, programa eta zerbitzuen berri izango dute, besteak beste

Txintxarri

Ttakun Kultur Elkartea 1991. urteko azarotik darama euskara eta euskal kultura normalizatzearen alde lanean. Hiru hamarkada pasa dira eta nabarmen aldatu dira mundua eta gizartea: sareak ikaragarriko pisua hartu du eta horregatik ezinbestekoa da unibertso horretan presentzia izatea. Ildo

horretatik, atari digital berri bat jarri du eragile horrek lasarteoriatarren eskura: www.ttakun.eus. TaPuntu kooperatibak diseinatu eta programatu du gailu desberdinetan erabiltzeko egokituta dagoen webgunea: ordenagailua, sakelako telefonoa, eta abar.

Helbide horretan sartzen direnek eduki ugaritan barrena

nabigatuko dute, hala nola, Ttakun KEREren historia, aurrera eramaten dituen programen nondik norakoak, Lasarte-Orian nahiz udalerrri horretatik kanpo ematen dituen zerbitzuak, kultur egitasmoak... Hiru hamarkada hauetan egindako lana atari digital batera eraman dute, testua eta multimedia edukiak uztartuta. Horrez gain, elkar-

tearen 30. urteurrenerako Janire Arroyo herritarrek prestatutako ilustrazioa erabili dute. Bost atal nagusitan bildu dituzte aipatutako horiek guztiak: *Hasiera, Ttakun, Gure programak, Zerbitzuak eta Kontaktua*.

400 bazkidetik gora

Ttakun Kultur Elkartea 1991ko azaroaren 16an jaio zen, euskal kultura eta euskararen normalizazioa Lasarte-Orian errotzeko eta bultzatzeko asmoz. 30 urteren buruan sekulako dimentsioa hartu du eragileak, sortzaileek imajina zezaketena baino handiagoa.

Geltoki kaleko 4. zenbakiko bulegoan gaude gaur egun, Jalgi Kafe Antzokiaren ondoan, baina ez da beti hala izan. Andrejoakinaenea haurren eskolako ganbaran egin zituen elkarteak lehen urratsak: urtebezez bildu ziren han, asteazkenero, eragile bat sortzea baitzen haien asmo eta ilusioa. Gorpuztea lortu zutenean, Pablo Mutilozabal kalera mugitu ziren, hariak eta Lasarte-Oriako Udalak Erribera kaleko lokala utzi zien arte. Sei urtez jo eta ke aritu ziren lanean han eta 1998an etorri ziren gaur egungo egoitzara. Urte horretan bertan eskuratu eta ireki zuten Jalgi.

Horrez gain, Iñigo de Loiola kalean topagune bat du euskara elkarteak, Ttakunenea izenekoa. Euskaltzale direnentzako "arnasgune berri bat" izateko asmoz jaio zen 2016. urtean. Gaur egun, elkartearen beraren zenbait egitasmo han egiten dituzte eta elkarte gastronomikoa ere bada.

Bidelaugun ugarirekin batera hazi da Ttakun: herritar, elkarre, ikastetxe, euskaltegi, alderdi politiko eta erakundeekin. Euskaltzale boluntarioek osatutako

talde batek dinamizatu zuen elkartearen hasieran; gaur egun, 440 bazkide inguru ditu eta lantalde profesional batek kudeatzen du eguneroko jarduna.

Lasarte-Oriaz harago

Gipuzkoako hainbat herritan esku hartzeak egiten ditu Ttakunek eta Lasarte-Oriako mugak aspaldi gainditu zituen Euskararen Maratoiaren antolatzen du, udalarekin elkarlanean (1992ko hirugarren alditik aurrera). Azkena 2022an izan zen, urrian hasi eta abendura arte luzatu zena: Euskararen 10. Maratoialdia. Sentitu, Pentsatu eta Ekin izeneko hiru fase aurrera eraman zituzten herritarren bihotz, buru eta mihiak astinduta.

Egoera utopiko batean, euskara eta euskal kultura erabat normalizatuta baleude alegia, jarduna eten beharko luke Ttakunek. Lasarte-Orian ez da hori gertatzen, eta ez dirudi egoera berehalakoan aldatuko denik. Horregatik, urratsak egiten eta urteak betetzen jarraituko du elkarteak. Helmugara iritsi bitartean, jarrai dezagun bideaz gozatzen, guztiok elkarrekin.

Koadro honen azpiko QR kodea sakelako telefonoarekin eskaneatuz gero, Ttakun Kultur Elkarteen webgunean barrena nabigatu ahalko duzue.



Gogotik ospatu dute Antzerkiaren Nazioarteko Eguna

Kukuka eskolako ikasleek emanaldi ugari egin dituzte Okendo plazan, guraso eta lagunen aurrean

Txintxarri

Aulkiak beteta eta hesien atzealdean jarrita, herritar ugari bertaratu zen antzezle gazteek prestatutakoa ikustera. Taldeka atera ziren erdigunera eta esketx bat aurrera eraman

zuten. Lehenek aulki bati beldurra ziotela irudikatu zuten, haietako bat ausartu, eta ukitu zuen arte. Arriskurik ez zela ikusita, soka saltoan aritu ziren, pozik. Ondoren, orrialde batzuk atera, eta mikro aurrean jarri

ziren, Jon Fosse dramaturgo norvegiarrak idatzitako manifestua irakurtzeko. Txandaka egin zuten, zatika, eta elebitan. Txaloak jaso zituzten eta bigarren taldea irten zen. Otsoaren beldur ziren neskatoak eta animaliak izan ziren kontakizunaren protagonistak.

Gaztetxo guztiek beren lana erakutsi ondoren, berriro, txandaka atera ziren plazara. Agurtu, txaloak jaso eta kokatzen joan ziren, denek elkarrekin talde argazkia egiteko.



Antzezleek talde argazkia atera zuten emanaldi amaieran. TXINTXARRI



Irudi honetan, Jokin Telleria lasarteoriatarra. Bera da Dantz Point ekimenaren arduraduna. JOKIN TELLERIA

"Orain artekoetan jendetsuena izatea espero dut"

JOKIN TELLERIA DANTZ POINT EKIMENAREN ARDURADUNA

Dantz Point ekimenaren hirugarren aldia hartuko du Lasarte-Oriak asteburuan. Okendo plazan aurrera eramango dute oraingoan, berrikuntza eta guzti; DJing saio bat antolatu dute

Maddi Zaldua

Denboraldiko lehen Dantz Pointa aurrera eramango dute larunbat honetan, hilak 13. Lasarte-Orian egingo den hirugarrena izango da, eta oraingoan, Okendo plaza hartuko du musika elektronikoa eta tokian tokiko ondarea uztartzen dituen jaialdiak. Jokin Telleria (Lasarte-Oria, 1981) herritarra da ekimenaren sustatzaile eta arduraduna, eta berarekin hitz egin du TXINTXARRI-k horren gaineko informazioa biltzeko. Eguraldi iragarpenak aldeko, egitasmo ederrean parte hartuko dute bertaraten direnek; gonbita zabaldu die herrikide eta bertatik kanpo bizi direnei: "Anima daitezela etortzera". Informazio osoa nahi

duenak, elkarrizketa hau irakurtzearekin batera, antolatzaileen sare sozialak ere kontsulta ditzake, besteak beste, [@dantzmusic](#) Instagram kontua.

Noiz eta nolatan erabaki zenuten Dantz Point egitasmoa martxan jartzea?

Donostian aurrera eraman genuen jaialdi batekin abiatu zen, 2017. urtean. Hor ikusi genuen musika elektronikoa oso zentzu zabalean ulertzen dugula eta aukera asko ematen dituela ekimen oso ezberdinak egiteko, eta, noski, gizartean inpaktu ezberdinak eragiteko ere bai.

Euskal Herriko ondarean arreta jarri, eta ohartu ginen oso interesgarria izan zitekeela hori musika elektronikorekin uztar-

tuz ekimenak aurrera eramatea, hau da, formatu berriak lantzea. Gauzak horrela, 2019. urtean lehen frogak egin genituen; lehen Zarauzko skate parkean egin genuen, eta bigarrena, berriz, Donostian, Urgullen.

Lasarte-Orian, aurtengoarekin, hiru espazio ezberdinetan aurrera eraman dugu Dantz Point. Egia da, aurreko aldiak egin diren lekuekin alderatuta aurtengo ohikoagoa izan daitekeela, baina Okendok ere badu bere historia. Brunet Enea parkean egin genuen iazkoa, eta Brigitarren komentu aurreko espazioan lehen. Hori nahi dugu, musika elektronikoa eta herriko ondarea uztartuz, jendeak herria ezagutzera.

Musika elektronikoa oso zentzu zabalean ulertzen dela aipatu duzu. Uste duzu badituela, nolabait, konnotazio jakin batzuk? Zuek saiatzen zarete, horiez gain, jendeak beste begirada batetik begira diezaion musika estilo horri, hau da iruditeria horri berri batzuk gehitzen.

Euskadin ibilbide bat izan du musika elektronikoa. Diskoteka asko egon dira, *La ruta del bacalao* ere existitu zen. Horiek elektronikaren iruditerian oso txertatuta egon dira. Guk, modu oso genuinoan, ez dugu begirada hori bazter utzi nahi, baina gure elektronika sentitzeko modua erakutsi nahi dugu. Orain arteko ikuspegi horrekiko ezberdina den zerbait eskaintzen dugu, eta jendeak hori antzematen du. Errazena edo ohikoena litzateke edozein klubetan emanaldiak egitea, baina guk, nahiago dugu eskaintza kulturalagoa egin.

Okendo plaza, agian, ezagunagoa izan liteke publikoarentzat. Ekimenak leku horretan antolatzea ohikoagoa da, baina, espazio horrek ere badu bere historia.

Bai, eraldaketa handia izan duen plaza da. Gainera, Dantz Pointa aurrera eramateko modua ere ezberdina izango da. Ez da ohiko oholtzarik izango; musikariak lurrean, publikoarengandik oso gertu egongo dira eta horiek ere hain ohikoa ez den beste eremu batean kokatuko dira; balkoiaren azpialdean. Okendo den bezala ikusiko da, zentzu horretan ez dugu ezer aldatuko.

Aurtengo aldiak, gainera, izango du berrikuntzarik. Formakuntza saio bat eskaini duzue.

Bai. Hori ere bada aurtengoaren helburuetako bat. Jendea formakuntzara gerturatzea nahi dugu, jakin dezaten zer den musika nahastea edota sesio bat egitea. Musikarien emanaldien aurretik izango da: 16:00etatik 17:30era. Bertan aritzeko izen ematea egin behar izan dute interesdunek, eta oraindik ere bada horretarako aukera info@dantz.eu helbidera idatzita. Askotariko adinetako jendeak egin du inskripzioa; 10 urteko neska gazte batek eta bere amak, adibidez, eta jende helduagoak ere bai. Momentuz, gainera, gizezkoek baino emakumezko gehiagok eman dute izena, eta hori oso interesgarria iruditzen zaigu.

Aurtengo jaialdia aurkezteko prentsaurrekoan emakumezkoen parte hartzea sustatzeko nahi eta asmoa ere agertu zenuen. Oraindik ere, mu-

sika elektronikorekin eremuan gizezkoen parte hartzea handiagoa da? Bai, hala da. Guk objektiboak diren datuei begiratzen diegu. Euskal Herrian, adibidez, musika elektronikorekin munduan dabilen artisteriari erreparatu gero, gizezkoak dira gehiago. Gu ez gara hori gertatzearen zergatieta sartzen. Egoera horren aurrean, ordea, guk egiten duguna da emakumeen parte hartzea sustatzeko erremintak euren eskura jarri, formakuntzaren bidez. Hemen ez daude akademia asko. Gizezkoek, askotan musika pintxatzen duten lagun gehiago izaten dituzte inguruan, eta bide horretatik hasten dira lehen pausoak ematen. Gerta daiteke emakumeek erraztasun horiek ez edukitzea, eta, gu saiatzen ari gara horretan laguntzen, formakuntzaren bidez. Ikusten dugu emaitzak ematen dituela; gure akademian izena ematen dute.

Lasarte-Orian hirugarren aldia izango da asteburu honetakoa. Zer-nolako erantzuna izan dute orain artekoek? Eta zer-nolako espero duzu asteburu honetakoa?

Orain artekoen *feedback*-ak izugarriak izan dira; oso ondo funtzionatu dute biek. Lehenengoa, lehen izanagatik ezezagunagoa izan zen alde horretatik. Brigitarren komentu aurrean egin genuen, espazio oso ezberdin batean, baina oso erantzun ona izan zuen. Bigarrenak are arrakasta handiagoa izan zuen; Brunet Enean, erdigunetik aldentuta dagoen eremuan izanagatik jende asko bertaratu zen. Eta asteburu honetan aurrera eramango dugunari begira jarrita, espero dut orain artekoetan jendetsuena izatea. Kaskoan izateak ere lagunduko du horretan, eta, noski, denboraldiko lehen Pointa izateak ere bai. Eguraldiaren iragarpena ere ona da, beraz, hori ere alde izango dugu.

Musikarien artean, herritarrak ere bai.

Bai, badaude bizpahiru artista herritarrak direnak; gainerakoak donostiarrek dira, baina, Lasarte-Oriarekin nolabaiteko lotura ere badute. Guztiak ezagutzen dute elkar, askotan aritzen dira Siglo XXn. Rubio, adibidez, Zaurutzen bizi da, baina lasarteoriatarra da, eta Paolo Solo ere bertakoa da.

Elkarrizketa, osorik,
www.txintxarri.eus
webgunean

Urtebetetzeetan
abesten dugun
kantu ezaguna
Kaxianorena da, eta
leloa buruz dakizu:

Zorionak
zure urtebetzean,
Zorionak
ta urte askotarako,
Zorionak
belarritik tiratzean,
Zorionak ta musu bat
zuretzako.

Eman irudiño
bakoitzari
bere hizkia eta
abestiaren lehen
ahapaldia azalduko
zaizu. Horretarako,
erabili beheko
alfabetoa.

ZORIONAK!

HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA



Hau da urtebetetze festa oparoa! Hemen gauza asko dago jateko! Irudi honen eta alboko bere islaren artean dauden aldeak aurkitu behar dituzu. Hamaika dira guztira.











Bete itzazu sudoku honen hutsuneak PASTEL hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (P, A, S, T, E eta L). Kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

SUDOKUA

Maripurtzili atsegin zaion bizkotxoak honoko osagai hauek ditu: hiru arrautza, ontzi bat irin, ontzi bat gozoki, ontzi bat olio, zorrotxo bat legamia, pote bat jogurt, limoi bat eta txokolatzeko krema. Zenbat bizkotxo aterako zaizkio?

Pastela



Labirintoa

Zenbat urte bete ditu Pellozirik?

ASKARI OPAROA



DOMINOAN

Urtebetzeetarako oso aproposa den domino honek sei irudi ditu: banderatzxoak, kandela, tarta zatia, puxika, oparia eta zorion txartela. Bete lauki zuriak, bakoitzari dagokion irudia marraztuz.



Parisko Olinpiar Jokoetan lehiatuko da Chourraut

Balentria ederra lortu du Lasarte-Oriako palistak; bosgarren Olinpiar Jokoetarako sailkatu da. Rio de Janeiro, Londres eta Tokion domina eskuratu ostean, berriro ere lehen postuetan egoteko borrokatuko da herritarra. Bidean Europako txapelketa du

Txintxarri

Hilabeteko lehen bi asteburuetan Espainiako Piraguismo Federazioak Kopako bi proba baliatu ditu Eslalom eta Kayak kros modalitateko Joko Olinpikoetako plazak banatzeko. La Seu d'Urgell (Katalunian) eta Pauen (Frantzia) jokatu dituzte saioak eta Espainiako palista onenak bildu dira bertan, Maialen Chourraut herritarra barne. Eskarmentua eta kanalen ezagutzaz baliatuz, lasarteoriatarrek bosgarren Olinpiar Jokoak lehiatzeko txartela eskuratu du Eslalomeko K1 mailan.

Lehen hitzordua hilaren 6an eta 7an izan zen Segre kanalean, La Seu d'Urgellen. Chourrautek ez zuen aukera galdu eta izendapena ederki bideratu zuen bertan.

Eslalomean hiru jaitsiera egin zituzten kirolariek eta lehen bi postuetan sailkatu zen Atletico San Sebastianeko kidea. Baina Laia Sorribes gertu izan zuen jar-



Maialen Chourraut (eskuinean), Parisko Joko Olinpikoetarako sailkapena eskuan. RFEF

dunaldian zehar eta zuhurtziaz herritarrak ez zuen txartela lortuzat ematen; Paueko kanaleko jardunaldia geratzen zen eta lehia berdintzea zuen aukariak.

Lasarte-Oriako kirolariaren susmoa egia bihurtu zen bigarren asteburuan. Sorribes Frantziako kanalean borrokatzeko prest agertu zen eta lehen bi jaitsierekin herritarraren aurretik amaitu zuen proba. Zirrara handiko txandan erabaki zen noren esku gera-

tuko zen maila horretako tokia; Chourrautek bere onena eman eta 1,06 segundoko aldearengatik bere izena idatzi zuen bosgarren Olinpiar Jokoak jokatzeko bermea emango dion txartelean.

Europako txapelketa

Parisko hitzordua prestatze bidean, maiatzean Europako txapelketa jokatu du herritarrak eta aurkarien prestaketa maila ere neur-tu ahalko du.

Aitor Manso gidariak lehen postua, Opakuako igoeran

Lasarteoriatarrek sailkapen orokorreko eta 9. mailako saria eskuratu ditu denboraldiko bigarren proban

Txintxarri

Opakuako igoera jokatu zen hilaren 6an, Agurain, Araban. Aitor Manso herritarrak Joseba Iraolak hitzordura huts egingo zuenaren jakitun, Aiatik Andatzen igoeran 9. mailako garaipena errepi-katu eta sailkapen orokorreko txapela ere jantzi nahi zuen. Alabaina, mendiko igoeren txapelketa bigarren proban 42 gidari izan ziren irteera puntuan eta aurkarietz gain, herritarrak arazo mekanikoei ere egin behar izan ziren aurre sari nagusia etxera eramateko.

Entrenamenduetan saioa ongi hasi zuen herritarrak eta lehen saioan marka onena egin zuen. Bigarren saiakera ezin izan zuen guztiz jokatu, ordea; palierra hautsi zuen.

Arazi mekanikoa konpondu ostean, lehen txanda kronometratu aurre egin zion Lasarte-Oriako gidariak eta bigarren denbora onena egin zuen; lehena 10. kategoriako Miguel Gutierrez kantabriarra izan zen zazpi hamarrenengatik.

Azken igoeran bere gogo eta ibilgailuaren gaineko ezagutza guztiak jarri zituen jokoan eta



Manso, Opakuako podiumean. A. MANSO

eguneko markarik onena sinatu zuen Mansok. Horri esker, sailkapen orokorreko eta 9. mailako garaikurrak jaso zituen lasarteoriatarrek.

Pozarren da herritarra lortutako garaipenarekin, baina argi du Iraolaren hutsuneak eman diola podiumeko gorenera igotzeko aukera.

Euskadiko txapelketako hurrengo jardunaldia maiatzaren 11n jokatu da Gorlan, baina data horietan Espainiako txapelketan lehiatuko dela aurreratu du herritarrak, Fitoko igoeran (Asturias), hain zuzen ere.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONALA

Amaiak Bat - Ostadar SKT

Larunbata. 12:00. San Miguel, Mutriku.

GORENGOEN MAILA

Ostadar SKT - Sanpedrotarra CF

Larunbata. 17:30. Michelin kirol gunean.

ERREGIONAL I. MAILA, IGOERA

Zarautz KE B - Texas Lasartearra CF

Larunbata. 15:30. Asti-Txiki, Zarautzen.

ERREGIONAL I. MAILA, KOPA

Ostadar SKT - Beti Ona CD

Larunbata. 15:30. Michelin kirol gunean.

OHOREZKO JUBENILA

Internacional CD - Ostadar SKT

Larunbata. 15:30. Matigoxotegi, Donostian.

JUBENILEN I. MAILA, IGOERA

Ostadar SKT B - Texas Lasartearra CF

Larunbata. 11:20. Michelin kirol gunean.

JUBENILEN I. MAILA, GIP. KOPA

Kostikas KE D - Ostadar SKT C

Igandea. 15:15. Matigoxotegi, Donostian.

OHOREZKO KADETEA

Ostadar SKT - A. Euskalduna SD

Larunbata. 13:05. Michelin kirol gunean.

KADETE I. MAILA, GIP. KOPA

Texas Lasartearra CF - Lazkao KE B

Larunbata. 09:45. Michelin kirol gunean.

Aizkorri Goleerri FT B - Ostadar SKT B

Igandea. 16:00. Alustiza, Seguran.

KADETE I. MAILA, UD. KOPA

Danena KE C - Ostadar SKT C

Larunbata. 12:30. Elbarrena, Zizurkilen.

ARETO FUTBOLA

I. MAILA

Eguzki Arkupe Rehab. - Oiartzun KE

Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.

III. MAILA

Irun Futsal Ganarrari CD - Eguzki ISU Lehoak

Ostirala. 21:15. Arteleku, Irun.

GAZTEEN MAILA

Aldapeta C- Eguzki Bod. Ayesa

Larunbata. 09:00. Aldapeta Maria ik., Donostian.

KADETE MAILA, LIGA

Lauburu KE Ibarra B - Eguzki G. Goxua

Larunbata. 12:30. Belabieta Kirol., Ibarra.

ESPAINIAKO TXAPELKETA

Eguzkiko Julen Mauleon, Julen Murillo eta Aimar Garcia 12 urtez azpiko Euskadiko selekzioarekin lehiatuko dira Erkidego arteko Espainiako txapelketan.

Asteazkenetik igandera. 13:15. San Pedro Del Pinatar, Murtzian.

SASKIBALOIA

I. MAILA

Ostadar SKT - CD Internacional

Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol.

III. MAILA

Ostadar SKT - Druck Hoops

Larunbata. 14:00. Maialen Chourraut kirol.

JUNIOR ERRENDIMENDUA

Ostadar SKT - Luberrri Lander Simulation

Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.

KADETE ERRENDIMENDUA

Ostadar SKT - Antigua Luberrri KE

Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

BOLEIBOLA

INFANTIL MAILA

Ostadar SKT A - Tolobolei Herrikide A

Larunbata. 11:15. Maialen Chourraut kirol.

Oiarso Urdina - Ostadar SKT B

Larunbata. 10:00. Orereta ikastola DBH, Errenterian.

PILOTA

LAU TERDI TX., 1. MAILA

Intza KE (Artetxe) - Lapke

Igandea. 11:30. Michelin kirol guneko pilotalekuan.

LAU TERDI TX., 2. MAILA

Eibar - Intza KE (Diaz de Gereñu)

Ostirala. 18:30 (2. partida). Astelena, Eibarren.

GIPUZKOAKO TX., EM. INFANTILAK

Intza KE - LAPKE

Larunbata. 18:15 (2. partida). Michelingo kirol guneko pilotalekuan.

UDABERRI TX., INFANTILAK, 2. MAILA

Intza KE 1 - Alde Zaharra 1

Larunbata. 18:15 (3. partida). Michelingo kirol guneko pilotalekuan.

UDABERRI TX., ALEBINA, 2. MAILA

Intza KE - Ziotza

Larunbata. 18:15 (1. partida). Michelingo kirol guneko pilotalekuan.

ERRUGBIA

EUSKAL LIGA, 2. MAILA

Gaztedi RT - Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT

Larunbata. 13:00. Gamarra, Gasteizen.

18 URTEZ AZPIKOA

Gaztedi RT - Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT

Larunbata. 10:30. Gamarra, Gasteizen.

BTT

BTT LASARTE-ORIA

350 bat BTT zaletuek BTT Rural Kutxa Lasarte-Oria proba lehiatuko dute.

Igandea. 09:00. Lasarte-Oria.

XAKEA

II. MAILA, IGOERA

Eibar - Taula A

Larunbata. 16:00. Eibarren.

ZALDI LASTERKETAK

UDABERRIKO DENBORALDIA

Hirugarren jardunaldia jokatu dute.

Ostirala. 11:20. Hipodromoa, Donostian.

Kirola eta elkartasuna bat, benjaminen lehian

Texas Lasartearra elkarteak antolatutako I. Benjamin txapelketan Antiguoko izan da garaile. Lehiaketaz gain, Yeray Rodriguez herritarren aldeko diru bilketa egin dute antolatzaileek eta Rodriguezen amak Patricia Martinek egin du ohorezko sakea

Txintxarri

Futbolaz eta elkartasunaz betetako jardunaldi ederra izan zen hilaren 6an Michelin kirol gunean. Texas Lasartearra CFk Lengokoak, Añorga, Vasconia, Kostkas, Igeltegi, Sporting de Herrera, Internacional, Mundarro, Martutene eta Antiguoko harrobiko taldeak batu zituzten I. Benjamin txapelketan. Giro ederra izan zen eta harmailak beteta egon ziren egun osoan zehar.

Antiguoko eta Vasconia A taldeek jokatu zuten lehiaketako Urrezko faseko finala eta donostiarrak izan ziren garaile, 3-1. Zilarrezko fasean ere emaitza bera izan zen; Igeltegi gailendu zitzaion Vasconia B-ri.

Texas Lasartearrako taldeak multzoko fasean Vasconia A, Internacional eta Mundarro izan zituen aurrez aurre eta hiru neurketak irabazi zituen. Baina finalerdietako ateetan geratu zen.



Patricia Martinek Texas Lasartearraren elastikoa jaso zuen, finala hasi baino lehen. ISAAC FARRÉ RICO

Jardunaldian zehar, Texas Lasartearra CFk Yeray Rodriguez herritarren hazkunde hormonaren tratamendua finantzatzeko diru bilketa egin zuen eta pozik agertu dira jendea zein babesleen erantzunarekin.

Horrez gain, Rodriguezek berak Urrezko faseko finaleko

ohorezko sakea egitea aurreikusten zuten antolatzaileek, baina ospitalean zegoenez, bere ama Patricia Martinek egin behar izan zuen.

Aurretik Yerairerentzat Texas Lasartearraren kamiseta bat jaso zuen; Goizalde Pildain kirol zinegotziak eman zion.

Hodei Murgiondok bikain hasi du surf denboraldia

Tapia Goanna Pro, Biarritz Pays Basque Maider Arosteguy eta Rip Curl Gromsearch probetan bigarren izan da

Txintxarri

Hodei Murgiondo surflari gazteak martxoaren 23an eman zion hasiera aurtengo denboraldiari. Hiru proba lehiatu ditu geroztik eta bere mailako -14 urtez azpiko kategoria-podiumeko bigarren mailan izan da guztietan.

Lehen proba Tapia Goanna Pro proba izan zen. Fesurfing Kids zirkuitu nazionaleko hasierako jardunaldian Asturiaseko Tapia de Casariego herrian jokatu zen. Lasarteoriatarrek Espainiako kirolari onenen aurka egin zuen lehia eta Alvaro Casanova kan-



Murgiondo, erdian, Donostiko

tabriarrak bakarrik gainditu zuen Murgiondo.

Aste Santuan zein Pazko asteen ere lehian izan zen Lasarte-Oria-

ko surflaria. Martxoaren 30etik apirilaren 1era Biarritz Pays Basque Maider Arosteguy lehiaketan parte hartu zuen eta hilaren 6an eta 7an, Donostiako Zurriola hondartzan jokatu den Rip Curl GromSearch txapelketan.

Europako surf txapelketarik zaharrenaren 38. edizioak Biarritzeko Hondartza handia hartu zuen eta Iparraldeko zein Frantziako lehiakideak izan zituen herritarrek. Euren mailan olatuak hobekien hartu zituen lehiakidea Ethan Fernandez izan zen.

Egun gutxitara, Groseko hondartzan ia 200 surflari gazterekin bildu zen herritarra eta berriro ere Alvaro Casanovarekin neurtu behar izan zituen indarrak. Lasarteoriatarrek bere onena eman eta bigarren postua eskuratu zuen.



Ohorezko kadete taldea, Terres D'Ebreko txapelketa hasi baino lehen. OSTADAR SKT

Ostadar SKTk, lan ona Tarragonan

Nahiz eta ligan etena egon, Ostadar SKTko taldeak ez dira nagikerian egon. Talde urdin-beltzeko sei talde Tarragona aldean izan ziren martxo bukaeran bi txapelketa lehiatzen.

Ohorezko kadetea Terres d'Ebreko nazioarteko txapelketa (ITE-DV7) jokatu zuen, La Rapita herrian. Iaz kadete mailako zilarrezko mailako garaikurra jaso zuen herriko taldeak eta aurten ere lehen postuetan egon da; urrezko mailako hirugarren sailkatu da.

Tortosaren aurka irabazi, L'Hospitalet F-rekin berdindu eta Tarragonako selekzioaren aurka galduta Urrezko faserako sailkatu ziren herritarrek. Final zortzirenetan Tarragonako selekzioa izan zuen berriro aurrez aurre eta arantza kentzeko aukera izan zuen talde urdin-beltzak, 0-1. Final laurdenetan Lasarte-Oriako taldeak neurketa zirraragarriena jokatu zuen L'Hospitalet B-ren aurka; penaltietan erabaki zen Ostadarrek (3-2) egingo zuela aurrera. Final erdian, berriz, L'Hospitaleteko lehen taldea izan zuen aurrez aurre. Nahiz eta lehen zatian katalanen erasoei ongi eutsi – atsedena diru aurkako 1-0ko emaitzarekin joan ziren –, bigarren zatian nagusi izan zen arerioa eta 5-0 amaitu zen neurketa.

Bestalde, errendimenduzko alebin, infantil txiki zein handi eta kadete 1. mailako neska zein mutil taldeek Salouen Costa Dourada Cup txapelketa borrokatu zuten eta bertan ere lan ederra egin zuten Lasarte-Oriako taldeek.

Infantil txiki eta alebin mailako gaztetxoek lortu zituzten emaitzarik onenak. Infantilek Tarragonako Constantiren aurka jokatu zuten finala. Ezin izan zuten saria herrira ekarri, ordea; 4-1 galduta zuten. Txikiak, aldiz, finalerdietara iritsi ziren eta Añorga KKEk kendu ziren finalera iristeko aukera; 5-0 gailendu ziren aňorgatarrak.



J.P. ARTETXE

Udaberriko Sariko txapeldun

Intza Kirol elkarteko Nagusien 2. mailako bikoteak Udaberri sariko finala jokatu zuen martxoaren 22an, Antzuolan. Jon Pello Artetxe eta Peru Urdanpilleta herritarrek Legazpiko Ion Agirre eta Aimar Telleria izan zituzten aurrez aurre. Neurketa borrokatua izan arren, lasarteoriatarrek 22-15 irabazi eta sari nagusia eraman zuten.



Probako antolatzaileak zein Goizalde Pildain kirol zinegotzia, aurkezpenean. TXINTXARRI

Lasarte-Oriako inguruez gozatzeko, BTT proba

350 zaletuk eman dute izena BTT Rural Kutxa Lasarte-Oria proban. Luzera ezberdina duten hori ibilbide egingo dituzte parte hartzaileek. Dortsalak hilaren 13an Urbileko Eroskin edo 14an bertan Antonio Mercero gunean jaso behar dira

Txintxarri

Hilaren 14an, igandearrekin, 09:00etan, BTT zaletuek hitzordua dute Lasarte-Orian; BTT Rural Kutxa Lasarte-Oria probaren hamahirugarren aldia aurrera eramango dute MX Racing eta Saiatuz kirol elkarteak, Lasarte-Oriako Udalarekin elkarlanean. Horren gaineko xehetasunak eman dituzte, prentsaurrean, antolatzaileek eta kirol zinegotzi Goizalde Pildainek.

Aurten ere, iazko arrakastaren ostean, probak 350 parte hartzaile izango dituela jakinarazi dute antolatzaileek. Askatasunaren parketik abiatuko da, eta Andatza eta Buruntza mendietatik zehar hiru ibilbide egingo dituzte txirrindulariek: motza (28,5

km eta 727 metroko desnibela); ertaina (35,5 km eta 937 metroko desnibela); eta, luzea (45 km eta 1.220 metroko desnibela).

Anoa gunek eta zerbitzuak

Ibilbidean zehar, hiru anoa gunek izango direla ere iragarri dute, eta, horietako bitan, Inguru Bikesez laguntza tekniko eskainiko duela ere azaldu dute. Laugarren eta azken anoa gunea, berriz, helmugan topatuko dute BTT zaletuek. Azken horretan dastatu ahaliko dute Patxi Larrañaga harategiko txistorra, besteak beste.

Horrez gain, bizikletak garbitzeko gunea ere izango dute parte hartzaileek helmugan, eta Maialen Chourraut kiroldegiko dutxak erabiltzeko aukera ere

izango dute, 14:30ak arte. Photocall bat ere izango da helmugan; horrela, hala nahi duenak bere parte hartzearen oroigarri gisa argazki bat ateratzeko aukera izango du.

Dorsal eta maillot biketa

Dorsalak eta maillot banaketa hilaren 13an, larunbatarekin, egingo dute Urbil merkatalguneko Eroskin. 10:30etik 13:30era izango da hori, eta probaren egunean bertan ere izango dute parte hartzaileek horiek eskuratzeko aukera, nahiz eta bezperan jasotzeko eskera egin duten antolatzaileek. Hilaren 14an, 07:30etik 08:30era joan behar dira txirrindulariak Antonio Mercero gunera.

Eguzkiko hiru jokalarri, Euskadiko selekzioarekin lehian

12 urtez azpiko Erkidegoen arteko Espainiako txapelketa jokatu dute herritarrek Murtzian

Txintxarri

Eguzki Aretok Futbol taldeko Julen Mauleon, Julen Murillo eta Aimar Garcia gazteek Erkidegoen arteko Espainiako txapelketa jokatu dute hilaren 17tik 21era, Murtzian.

12 urtez azpiko Euskadiko selekzioak herriko taldeko hiru gazteak deitu ditu txapelketan parte hartzeko. Lehiaketa prestatzeko hainbat saioetan izan dira gaztetxoak Eguzkiko Inhar Lasa eta Unax Oliva taldekideekin batera; hiruk bakarrik lortu dute azken deialdian egotea.

Herritarrek kide izango dituen Euskadiko taldea D multzoan lehiatuko da eta Andaluzia eta Aragoi izango ditu aurkari. Taldeko lehen geratuz gero, hilaren 20an finalerdiak jokatu litzakete eta finala egun bat beranduago izango litzateke.

14 urtez azpiko mailako prestatketa saioetan ere izan da herritarrik, Alex Corchuelo eta Unax Urdangarin, baina txapelketatik kanpo geratu dira.



Janáček, hiru zenbakiarekin, aurkariarekin lehian. DAVID ARGINDAR/DONOSTIAKO HIPODROMOA

Janacek hockeyak bigarren jardunaldi ederra egin du

Aterpea merkatarien elkarteak babestutako bost sarietatik hiruetan garaile izan da gidari txekiarra

Txintxarri

Hipodromoko udaberriko denboraldia aurrera doa. Gaur, hilaren 12an, hirugarren jardunaldia jokatu da eta 5ean jokaturako hitzorduen antzera Lasarte-Oriako Aterpea Merkatari elkarteko merkatarien babesa izango dute sariak (ikus ondoko koadroa).

Lasterketa interesgarriak ikusteko aukera izango dute zaletuek, aurreko bi saioen modura.

Janáček-en eguna

Hilaren 5ean ikuskizuna ez zen falta izan eta Vaclav Janacek jockey txekiarra izan zen protagonistan lehen hiru lasterketak eskuratuz.

Eguna irekitzeko, Texeirak eta Janacekek lasterketa bikaina egin zuten Herriko etxea jatetxea sarian. Jarraian, Buenetxea kafe-taberna saria nagusiki irabazi zuen gidari txe-

Hirugarren jardunaldia, ostirala 12, 11:20

- Soraya Gallego Mikropigmentazioa
- Lasarte-Oria Orain - Isaac Farré fotografo
- Arregui elektrizitatea
- Ormazabal Loradenda - Ehun urte zuekin
- Marbell ileapaindegia

kiarrak Clori-ren gainean eta ISU Leihoak saria ere Janacekentzat izan zen, baina oraingoan Sky Hawke-rekin batera lortu zuen garaipena.

Gainerako bi lasterketak, Maiane lurrin denda eta Milla finka administratzailea sariak, Marchelo-Carlos A. Loiza eta Tammani-Denisa Sikorova bi-koek irabazi zituzten, hurrenez hurren.



Eguzkiko hiru kideak prestatketa partida baten ostean. G. REDONDO

Nahiz eta harrobiko selekzioek lehia izan, ligak ez du etenik izango eta Eguzkiko taldeek jardunaldia jokatu dute.

Etxean I. mailako zein infantilen partidaz gozatu ahaliko da, biek neurrak zailak egingo ditue aurre.

Lehen taldeak bigarren postuan dagoen Oartzunekin neurtuko ditu indarrak, hilaren 12an. Taldeko txikiak, aldiz, sailkapenean bi puntu aurretik dagoen Laskorain izango dute aurkari, hilaren 13an, 09:30ean.

KOMIKIA



ZORION AGURRAK



Ane
Zorionak maitia! Asko maite zaitugu.



Nahia
Zorionak gure etxeko printzesari! Zorionak urtebetetzearengatik, eta zorionak pixkanaka ari zaren pertsona ona eta alai bilakatzeagatik, oso harro gaude zutaz! Infinito maite zaitugu: Ekhi, Aita eta Amatxo.

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri, jaioberri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak

Internet

- txintxarri.eus/ zorionagurra.
- Erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzailerik ez baduzu izena eman.
- Zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

OSTEGUNEKO 16:00AK ARTE JASOKO DITUGU

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINZAK: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 12	ACHA-ORBEA
LARUNBATA, 13	LASA
IGANDEA, 14	LASA
ASTELEHENA, 15	URBISTONDO
ASTEARTEA, 16	GANDARIA-URIBE
ASTEAZKENA, 17	DE ORUE
OSTEGUNA, 18	DE MIGUEL

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00

DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
 ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
 DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
 LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
 GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
 URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
 GANDARIAS-URIBE: I.de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00

Florida Farmazia: Mañe I Flauquer plaza 6, Hernani. 943-57 64 77

'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

OHARRAK

Zatoz txistua jotzera

Txistularia bazara, eskola zaharrekoa zein kontserbatoriokoa, hasiberria edota txistua tiraderan ahaztuta hautsa biltzen dutenetakoa. Duzun maila duzula ere, zatoz gurekin entsaiatzera. Adin guztietako lagunak topatuko dituzu eta giro ezin hobea. Besoak zabalik hartuko zaitugu. REMen biltzen gara asteartero 19:30etik aurrera.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN

Ostirala, 12



Larunbata, 13



Igandea, 14



Astelehena, 15



Asteartea, 16



Asteazkena, 17



Osteguna, 18



SUDOKUA

9				6	8	4	2	
	2	7		4		6		
	6	4	2		1	8		7
6	7		8	5		2		
	8	9		2	6	7		
	5	2			4	1		8
2			4				1	6
1		6	3				7	2
7		5	6	1			8	

Sudoku10.net



Jaio da!

Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali haurren izen-abizenak eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

ESKUTITZA

Eskutitzak argitaratu nahi dituzten herritarrek hiru modu dituzte testua bidaltzeko: bulegora etotzea (Geltoki kalea 4, behe), txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo WhatsApp bidez, 688 68 35 10 telefonora bidaltzea. Idatzia orri hauetan publikatua izan dadin, izen abizenak zeintzuk diren zehaztu beharko dute.

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ALOKATU



Apartamentu ederra alokatzen dugu Torredembarran (Tarragona), asteka, uztailean eta abuztuan. Etxe indianoa eta oso argitsua. Beheko solairuak lorategia du, eta hondartzatik 500 metrora dago. Etxebizitzak amerikar erako egongela, sukaldea, bainugela eta senar-emazteentzako logela ditu. Guztira 50m2 lorategiarekin, irteera independentearekin eta

aparkaleku propioarekin. Prezioa 975 euro sei gau. Informazio gehiagorako 608319110 608043713 telefonoak. "Ongi Etorri".

SALDU

Denda saltzen dut. Okendo plazan dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zenbakira.

GARAJEA

ALOKATU

Hipodromo etorbidean garaje ibxia alokatzen da. Berria. Prezioa negoziagarri. Harremanetarako zenbakia: 616 81 68 14.

Erdigunean garaje marra bat alokatzen dut abendutik aurrera. Arratsaldez deitu hona: 650 63 65 88.

LANA

ESKARIA

Emakume euskalduna etxeko lanak edo pertsona edadetuei

laguntzen lan egiteko prest. Esperientzia dut. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

BESTELAKOAK

SALEROSKETA

Haritz egurra saltzen dugu, tximinia edota ekonomiketarako. Eskatu ostean etxera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

Atal honetako iragarkiak doan dira herritarrentzat (lau astez argitaratuko dira). Profesionalentzat, aldiz, 4 asterako kontratazioak 12 € + bez izango da prezioa.

Iragarkia jarri nahi baduzu jar zaitzuek harremanetan

txintxarri@ttakun.eus
943-37 14 48
688 68 35 10

ESKELA


ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943-37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan **943-37 14 48**

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

Etxe ondoan, kalean, auzoan... gertutasunez eta euskaraz



www.txintxarri.eus

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldúa eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaleak:
Nikola Iraola, Xuban Urdalleta, Egoitz Epelde, Nora Navarro, Sergio Hernandez, Ander Hazas eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia

Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

OSTIRALA 12

LASARTE-ORIA Mobilizazioa
Lasarte-Oria Osasun Publikoaren Alde taldeak ekintza bat aurrera eramango du *Osasun publiko eta kalitatezkoaren alde* lelopean. *Anbulatoriotik abiatuta, 18:00etan.*

LASARTE-ORIA Dokumentala
Okendo Zinema Taldeak aurrera eramango duen Euskal Dokumentalen Zikloaren lehen proiektzioa izango da; Iratxe Fresnedaren *Tetuan* proiektatuko dute. Sarrerek 6 euro balio dute. *Kultur etxea, 20:00etan.*

LARUNBATA 13

LASARTE-ORIA Antzerkia
Gorakada Antzerki Taldearen *Kelonia eta itsasoa* antzerkiak gozatu ahalko dute herriko familiek. Sarrerek 4 euro balio dute. *Kultur etxea, 17:00etan.*

LASARTE-ORIA Dokumentala
Okendo Zinema Taldeak aurrera eramango duen Euskal Dokumentalen Zikloaren bigarren proiektzioa izango da; Maria Elorzaren *A los libros y a las mujeres canto* proiektatuko dute. Sarrerek 6 euro balio dute. *Kultur etxea, 20:00etan.*

IGANDEA 14

LASARTE-ORIA Zinema
Museoaren zaindaria haurrentzako filma proiektatuko dute. Sarrerek 4 euro balio dute. *Kultur etxea, 17:00etan.*

LASARTE-ORIA Zinema
Los niños de Winton helduentzako filma proiektatuko dute. Sarrerek 6 euro balio dute. *Kultur etxea, 19:30ean.*

LARUNBATA 20

LASARTE-ORIA Antzerkia
Ttanttaka Teatroaren eskutik, Fernando Bernués zuzendariaren *Esnearen kolorekoa* antzerkiak



LASARTE-ORIA Jaialdia
Badator Dantz Point ekimenaren hirugarren aldia: hilaren 13an aurrera eramango dute, Okendo plazan. Ekitaldiaren helburua da Lasarte-Oriako ondareari eta historiari balioa eman, tokiko eta lurraldeko talentuaren bidez. Aurtengoak, gainera, berrikuntza bat dakar: DJing masterclass bat aurrera eramango dute. Musika emanaldien aurretik izango da hori, 16:00etatik 17:30era. *Okendo plaza, 16:00etatik aurrera.*

gozatu ahalko dute ikus-entzuleek. Sarrerek 14 euro balio dute. *Kultur etxea, 20:00etan.*



IGANDEA 21

LASARTE-ORIA Izen ematea
Lasartearra elkarteak jakinarazi du hilaren 21a izango dela aurtengo mus txapelketan inskribatzeko azken eguna. Parte hartu nahi duten bikoteek 20na euro ordaindu behar dituzte elkartearen egoitzan (Erribera kalea 10. zenbakia). *Lasartearra elkartea.*

ASTEARTEA 23

LASARTE-ORIA Solasaldia
Borobilean Elkartek apirilko saioa aurrera eramango du: *'Lasarte-Oriak gaztetxea behar du?'*, Horretarako, honako eragileetako kideak gonbidatu dituzte: Birunda gune autogestionatua (Donostia),

Usurbilgo Elkargunea eta Añorgako nahiz Orioko gaztetxeak. *Oriarte Landaberi institutua, 19:00etan.*

OSTEGUNA 25

LASARTE-ORIA Aurkezpena
Idoia Garzes Aldazabal idazle lasarteoriatarak bere azken lana aurkeztuko du, *Dei galdu bat*. Goiatz Labandibarrek dinamizatuko du saioa. *Kultur etxea, 18:30ean.*

OSTIRALA 26

LASARTE-ORIA Antzerkia
Okendo Zinema Taldeak aurrera eramango duen Euskal Dokumentalen Zikloaren hirugarren proiektzioa izango da; Ainhoa Andraza Zuri Goikoetxearen *Cabeza y corazon* proiektatuko dute. Sarrerek 6 euro balio dute. *Kultur etxea, 20:00etan.*

LARUNBATA 27

LASARTE-ORIA Emanaldia
Lasarte-Oriako Alboka abesbatzak antolatuta, Italiako San Salvatore

ZINEMA



LABURPENA

'Los niños de winton'
Zuzendaria: James Hawes. **Ekoizleak:** BBC Film, MBK Productions, See-Saw Films, Cross City Films, Filmnation Entertainment. **Gidoia:** Lucinda Coxon, Nick Drake. **Herrialdea:** Erresuma Batua (2023). **Iraupena:** 110 minutu. **Generoa:** Drama. Benetako gertakizunetan oinarritua. **Aktoreak:** Anthony Hopkins; Johnny Flynn; Helena Bronham Carter; Romola Garai; Lena Olin; Alex Sharp; Ziggy health; etab.

Txirindulari gazte britainiar batek

Nicholas *Nicky* Winton (Anthony Hopkins) txirindulari britainiar gazte batek nazien ehunka haur erreskatatzen lagundu zuen Bigarren Mundu Gerraren bezperan, amaren laguntzarekin (Helena Bonham Carter). Hori, ordea, 50 urtez ia ahaztuta izan den erruki

ekintza bat izan zen. Nicky atsekabetuta bizi da, erreskatatu ezin izan zituen haurren mamuengatik. Gehiago ez egiteagatik, errua egotziko dio. James Hawes zuzendariaren benetazko gertakizunetan oinarritutako drama film bat da.

koruak emanaldia eskainiko du. Brigitarren komentuan izango da, eta sarrera, doakoa. *Brigitarren komentua, 19:30ean.*

LASARTE-ORIA Dokumentala
Okendo Zinema Taldeak aurrera eramango duen Euskal Dokumentalen Zikloaren laugarren proiektzioa izango da; Josu Martinezen *Mirande* proiektatuko dute. Sarrerek 6 euro balio dute. *Kultur etxea, 20:00etan.*

IGANDEA 28

LASARTE-ORIA Zinema
Kung fu panda 4 haurrentzako filma proiektatuko dute pantaila handian,

eta Po panda hartaren istorien berri izango dute gaztetxoek. Sarrerek 4 euro balio dute. *Kultur etxea, 17:00etan.*



LASARTE-ORIA Zinema
La familia Beneton helduentzako filma proiektatuko dute. Sarrerek 4 euro balio dute. *Kultur etxea, 19:30ean.*

txintxarri

*Lasarte-Oriako etxe eta komertzioetan,
doan eta euskaraz*

**Zure iragarkia jarri
nahi duzu? Jar zaitez
gurekin harremanetan!**

Deskontu bereziak herrikoentzat!

ESKATU TARIFAK: publizitatea@ttakun.eus • 646 82 44 66 

ORIANTE BHI

www.oriarte.hezkuntza.net

BATXILERGOKO-ko IKASLEEN ONARPENA 24-25



Larrekoetxe eraikina
Buenos Aires aldapa 1,
20160 Lasarte-Oria
943 89 94 92